

EITBko albistegiak: LABen diagnostiko orokorra eta proposamena

2016ko abendua



<http://eitb.lab.eus>

@labeitb

eitb@lab.eus

Oso nabarmena da EITBko informazio politika, jendartearen zerbitzura baino, interes alderdikoen mesederako erabili izan dela bere sorreratik. Pertsona eta kolektibo ugari egindako kalte itzelak ere hor daude (gaztetxeak, intsumisoak, gazte erakundeak, herri mugimenduak eta bestelako aukera politikoak orokorrean...), eta EITB barruan soilik LABek salatu ditu egoera hauek. Izan ere, bi kontzeptu hauek, jendartea eta alderdia, oso nahasita dituzte gobernu ezberdinetan egondako alderdiek. EAJk historikoki kemena eta tresna guztiak jarri ditu Jaurlaritza osatzeko garaian zein Madrilak delako autogobernuari egin ohi dizkion erasoei aurre. EITB da inoiz askatu nahi izan ez duen harribitxia, Ekonomia eta Ertzaintzarekin batera.

«Profesionaltasunari» buruzko ohar txo bat, kontzeptuak argitzen jarraitzeko. EITBko zuzendari ezberdinek ere modu interesatuan erabili izan dute, eta, «profesionaltasuna» bezalako adiera baino, «gertuko kudeatzaileak» dute buruan erabaki politikoak (alderdikiok) egokitzeko garaian.

Hain zuzen ere, LABen sail sindikalak gai zehatz honi berriro heldu eta, egungo diagnostikoaz gain, aurrera begirako oinarritzko proposamenak azaldu nahi ditu txosten labur honetan, EITBren gainbehera kontuan hartuta eta jendarteak aspaldi eskatzen ari den komunikabide publikoaren birmoldaketa dela eta. Xehetasunetan murgiltzea interesgarria izan zitekeen, baina helburuetatik urruntzeko arriskua du horrek. Beraz, txosten honen helburua azterketa orokor bat egin eta oinarritzko proposamen bat eskaintzea da.

Halere, horren aurretik gogora ekarri nahi dugu 2011 urtean, Eusko Jaurlaritzan PSEk PPre laguntzarekin zilegitasunik gabe gobernatzen zuenean, LABen fundazioa den Ipar Hegoak Aztiker kabinete soziologikoarekin egindako azterketa zabala. Informazioaren trataerari buruzko azterketak hiru gai zehatzi heldu zien: lurraldetasuna, emakumea eta ekonomia. Hauek dira gai bakoitzari buruz LABek atera zituen ondorioak, era sakonagoan EITBko ⁽¹⁾ LABen webgunean azter daitezkeenak:

Lurraldetasuna: «Ez informazioaren» aldeko apustua; Euskal Herria ez da existitzen, esparru autonomikoa indartu egiten da; albisteak alderdikieriaz erabiltzen dira, eta galbahea pasatzen zaie; errealitate propioa baztertu egiten da; ereduak tentsioak sortzen ditu langileen artean.

Emakumea: Emakumeen ikusezintasuna; emakume eta gizonen errepresentazio estereotipatua, hierarkiko eta diskriminatzailea; androzentrismoa; mugimendu feminista ez da existitzen; emakumeen kontrako indarkeriaren trataera sentsazionalistarako joera, berezko indarkeria estruktural bezala tratatu beharrean.

Ekonomia: Albistegietan oso tarte txikia hartzen du (%7,4); desberdintasun sozialak eta klase-interesen kontraesanak ezkututzen ditu; enpresari-klasearen errepresentazio este-

⁽¹⁾ <http://eitb.lab.eus/?q=node/336>

reotipatua eta positiboa, langile-klasearena negatiboa eta biktimatzailea; laneko istripuak zorigaitzaren ondorio bezala aurkezten dira; krisialdiaren testuingurua fenomeno bezala aurkezten da, erantzulerik aipatu gabe; transmititzen diren balioek individualismoa indartzten dute kolektibotasunaren aurrean, ideologia menderatzailea mantenduz eta onartzen lagunduz.

Azterketa 2010eko amaierakoa bada ere, ez dago hain denboraz kanpo. Are gehiago, emaitza berdinak aterako lirateke azterketa hamar urte lehenago egin izan balitz, bai eta gaur egun egingo bagenu ere. Bakarrik ñabarduraren bat egongo zen lurraldetasunaren trataeraren kasuan, baina horixe litzateke, ñabarduraren bat besterik ez.

Hauxe da, hain zuzen ere, EITBko albistegietan bere sorreratik bertatik gaurdaino mantentzen den egitura eredu beraren ondorioaren froga xume bat. Azter dezagun, beraz.

Diagnostikoa: nola egiten diren albistegiak EITBn, eta honek informazioaren kalitatean duen eragina. **Informazioa ekoizteko egitura**

Aurreratu dugun bezala, erredakzioen egiturak beraiek badira informazioa profesionaltasun egokiz ezin lantzearen arrazoi nagusietako bat. Zeharo bertikala da, eta postu guztiak atzamarrez izendatuak dira, eskema honen arabera:



Hau izango zen funtzionamendua:

1. Albistegietako zuzendarien bileran erabakitzen dira EITBren agendak eta informazio lerro nagusiak.
2. Ondoren, zuzendaria, zuzendariordea, editorea eta bost arlo buruak dira albistegi bakoitza zehazten dituztenak, aurreko taldeak markatutako kontsingen arabera. Paperetan

ardura hauek guztiak maila berean agertzen badira ere, aurreko grafikoaren bertikaltasunari jarraitzen zaio:

- Izenburuak, albisteak zein ordenan doazen, zeri eman garrantzia, enfokea...
- Albiste bakoitzaren formatua: iraupena, zuzenean, off+kortea, sarrera eta bideoa, zein kazetarik egin...

Funtzionamendu honek informazioaren kontrola ziurtatzen badu ere, hiru arazo nabarmenduko genituzke: kontsignak, autozentsura eta desprofesionalizazioa.

EITBn **zentsura zuzena ezohikoa** bada ere, kasu sonatuak izan dira. Adibide pare bat gogoratzearen, Surioren garaian zuzenketa agindu zuzen bati uko egiteagatik bi kazetari irerkitako espedientea gogoratuko genuke; eta orain, Iturberen garaian, Cabacasen familiak legebiltzarrean EAJko bozeramailearekin izandako istiluari garrantzia «gehiegi» emateagatik, editore batek zigortuta jarraitzen du.

Zentsura zuzena baino, **kontsignak** dira gehien erabiltzen dituztenak. Albistegietako buruek editoreei «hau azpimarratu behar da», «hau esan behar da», «albiste egiteko pertsona egokiena hau da» eta horrelakoak gomendatzen dizkiete. Egituraren bertikalitasunak egiten du gainontzeko lana.

Komunikabide gehienetan darabilen beste ezaugarri nagusi bat **autozentsurarena** da. Erredakzioetan beldurra dago, eta, batez ere, medioetan dagoen prekarietateagatik ematen da. Bazterketa edo zigorraren mehatxua garunean nabaritzen da. Prekarietatea da, hain zuzen ere, LAB etengabeen borrokatzen dabilena, eta ugariak dira egindako mobilizazioak eta lan ikuskaritzan eta epaitegietan aurkeztutako salaketak gaitz hau gainditzeko. Lan poltsak eta lan hitzarmen duinak ezinbesteko tresna dira, eta, gezurra badirudi ere, aurtengo uztailera arte ezin izan dira ordenatu ETBko erredakziorako lan poltsak, zuzendaritzaren trabak direla medio. Borrokaren iraupenaren eta garrantziaren neurria ematen du datu horrek.

Zuzendaritzak (alderdiak?) kazetariak gertukoak, edo sikiera deseroso sentiarazten ez zaizkionak nahi ditu. Etxeko langileei ez zaie aukerarik ematen albistegiak aurkezteko edota ardura postuak hartzeko. Ez da anekdota hutsa duela gutxira arte hainbat aurkezlek antzezle kontratua eduki izana. LABek bideratu zuen arazo hura, baina badirudi zuzendaritzak albistegien aurkezleen figurak, garrantzitsuak ere, kontrolatzen jarraitu nahi dituela. Irizpide hauek ere sinesgarritasunaren kontra talka egiten dute.

Andoni Ortuzarrek 2005ean Zuzendari Nagusia zenean aitortu zuen², prekarietatearen apologia eginez, komunikabide publiko baten «egonkortasunarekin eta lan baldintzen

⁽²⁾ «(...)una televisión pública...») Tiene unas características especiales y prioritarias, como son la estabilidad del personal y la calidad del trabajo. También tiene desventajas, como que la gente se adocena» http://cincodias.com/cincodias/2005/03/05/economia/1110271569_850215.html
Adocenar: Volver a alguien mediocre o vulgar

kalitatearekin langileak errezenera jotzen duela». Komunikabide batean hasten den lehen egunean, kazetari berriak entzuten duen lehen gauza da «fakultatean ikasitako guztia ahaztu, hau errealitatea da». Aholku edota iradokizun bidez oso sakon sartzen dira ikasgai berriak, eta eragin horrek asko iraun dezake, kazetariak autonomiarik ez badu, batez ere. Ez da kasualitatea bere garaian diseinatutako pertsonal politika bera, eta arduradun bera, oraindik irautea. Pertsonal burua zuzendaritza ezberdinek mantendu egin dute, nahiz eta bere gaitasuna zalantzan jarri izan duten. Gaitasuna seguruenik ez da profesionala, baizik eta kanpoan hartzen diren erabakiak EITBn egikaritzea.

EITBn **ez dago lanbide karrerarako aukerarik**. Esan bezala, ardua karguak atzamarrez izendatuta daude, aukera berdintasuna urratuz. Zuzendaritzak kargu guztiak «bolondresen artean aukeratuak direla» argudiatzen duenean zera ezkutatzen du: boluntarioak ez dituela langile guztien artean bilatzen, komunikabide publikoan ez da aukera berdintasuna bermatzen. Irailean bertan beste epai garrantzitsu bat irabazi du LABek; ETBko erredakzioan eman izan den bazterketagatik, hain zuzen ere. Epailiek gure tesia baieztatu dute, eta ardurako postuak betetzeko etxe barruko langileekin bete behar direla agindu du. EITBko zuzendaritzak, jakinda ere, legez kanpoko kontratuen bidez betetzen ari zen, eta jarraitzen du, hainbat ardua postu.

Bereziki salagarria da etxe osoan hedatuta dagoen **adiskidekeriazko gestore sistema iluna**³. Honen kontra ere LAB irmoki borrokatzen ari da esparru guztietan, eta ez diogu etsiko. Berririo diogu ez dugula orokorkerietan eta pertsonalizazioetan erori nahi, baina minbizia duen sistema hau kontrol bertikala eta zurruna bermatzeko dago eraturta. Langile batzuk prekarietatean mantentzeko balio duen bezala, adiskideak ondo saritzeko ere balio du sistema ustel honek.

Hortik jarraituta, funtzionamendu honek **kazetarien espezializazioaren kontra** jotzen du. Izan ere, ikasturte osoan arlo berean mantenduta ere, egunero editoreak zer aginduko zain egoten dira. Kontuan hartu beharra dago albiste guztiak ez direla egun berean iraungitzen. Batzuk soilik goiz bateko bizitza badute ere, askok egun osoko jarraipena eskatzen dute eta beste hainbat egun gehiagotan egin behar zaie jarraipena. Alferrik da informazio bati aurre egiten saiatzea, gaur egindako informazio bati jarraipena egitea, ikerketak behar bezala egitea... izan ere, bihar beste zerbaitetan jarriko zaituzte. «Abarka asko daukanak, apreta gutxi». EITBNETen adibidez, talde txikiak izanik, kazetari bakar bat ez da iristen bere arloko eguneko albiste guztiak egitera. Kazetariarengan, gainera, zalantzak, beldurrrak eta konplexuak sortzen ditu, autozentsurarako beste iturri bat. Hau da, espezializazio faltak profesionalarengan eta informazioaren kalitatearengan eragin negatiboa du.

⁽³⁾ LABen TXOSTENA: EITBko pertsonal politikaren azterketa eta salaketa
<http://eitb.lab.eus/sites/default/files/151023%20LAB%20EITB%20TXOSTENA%20-%20EITBko%20kontratazio%20politikaren%20azterketa%20eta%20salaketa%20-%20eu.pdf>

Urte asko pasatu behar izan dira **Erredakzio Kontseiluak eta Erredakzio Estatutuak** onartu ahal izateko. Izan ere, oso gogorra izan da beti EAJk (eta bere inguruko «profesionalek») egindako kontrako jokabidea, eta gogorrak ere erredakzioetan eta LABek egindako irabazteko borroak. Bi figura hauek euren aldetik arazoa erabat konpontzen ez badute ere, ezinbesteko tresna dira kalitateko kazetaritza bat egin nahi izanez gero.

Agenda propiorik ez

Oso nabarmena da ere, programazio orokorraz gain, **EITBko albistegiak ez daudela Euskal Herriko beharretara begira ikuspegi propioarekin**. Segidismo itzela egiten zaie jarraitzaile asko dituzten komunikabideei, eta “bertako ukitua” ematera mugatzen da EITB ia erabat. Telecinco, Vocento eta SER medioez ari gara, batez ere. “Diario Vasco-k hau atera du”, “estilo hau eramaten da orain” (non baino?). Horiez gain, alderdi politikoen agendek markatzen dute, batez ere, egunerokotasuna. Ez dago inizatibarik, eta nortasun falta nabaritzen da erredakzioetan. Badirudi beldurra edo konplexuak daudela Vocentoren izenburuetatik urruntzeko, edo albisteak ikuspegi propioekin lantzeko. Albistegiaren lanketaz zein formatuaz ari gara. Izan ere, medio pribatu handi hauek duten informazioa entretenimenduari nahasteko duten joera erabat kopiatu eta EAera egokitzea mugatzen da EITB.

Albistegien beste ezaugarri nagusi bat lurralde erreferentziarena da. Ohikoagoa da Murziako gertakizun bat lantzea Lapurdikoa baino, are gehiago arlo sozialekoa bada. Euskal Herrian tokiko korrespontsaliak sustatu beharrean, teletipoetan oinarritzen jarraitzen dute EITBko erredakzioek.

Sarreran aipatu bezala, 2011n dagoeneko albistegien lurraldetasunaren trataerari buruzko azterketa sakona egin genuen. Antolaketa ikuspegitik zera gehituko genuke oraingoan: egitura faltagatik, Ipar Euskal Herriko kirola ia ez da existitzen, eta EITBNETek ezin du bertako informazioa ekoiztu. Bestalde, aipagarria da ere Nafarroan asteburuetan ez dagoela korrespontsalik, eta aspaldiko kontuak dira hauek, ez kointunturalak.

Eta “agenda propioaz” ari garela, arazoa sakonagoa da euskararen ikuspegitik. Izan ere, ETB1eko albistegiek ETB2koen menpe jarraitzen dute, erdarazko bertsioa asmatu zutenetik. Irratietan erabateko independentzia badute ere, eta azken urteetan Euskadi Irratiak pairatu izan duen baliabideen bazterketa historikoa gaunditzen ari bada ere, ez da gauza bera gertatzen Euskal Telebistan. Gaur Egun albistegiak lehenago emititzen badira ere, lehenasuna Teleberrin jarri izan du beti zuzendaritzak. Honek azkenean “halabehararen” asimilazio batera eramaten ditu profesionalak, eta buelta eman behar zaio honi.

Zuzendaritzaren asmoak, aurrera begira

EITB Bilbora eramatera erabaki zutenetik, zuzendaritza ezberdinen asmoa izan da “erredakzio bakarra”, “erredakzio multimedia/bimedia” edota medioen arteko “konbergentzia”. Halere, 2000 urtetik gaur arte langile batzordeek ez dute proposamen serio bat ere

jaso. Hainbat kontzeptutan ados egon bagaitezke ere, arriskuak ikusten ditu LABek:

- Ados gaude «baliabide berdinekin gehiago» egin daitekeela esaten denean, gehiago eta hobeto esango genuke, gainera. Baina tranpa nabarmenegi antzematen da jarraian aurkeztu zuten plantilla murrizteko proposamenean. Gero azalduko dugun bezala, gure ustez langile gehiago behar dira oraindik gauzak behar bezala egiteko. Beraz, gure ustez «gauza bera egiteko baliabide gutxiago» bilatzen ari da zuzendaritza. Hau da, espezializazioaren eta profesionaltasunaren gainbeherari, "gizon-emakume orkestra" gehituko zitzaion.
- Irratiaren kasuan orduro buletinak egin behar dira, eta honek ezinezko bihurtzen du albisteak telebistarako prestatzea.
- Egungo lan zamak eta ordutegiak ere asko zailtzen dute horrelako asmo bat.
- Gai ateporalekin akaso izan zitekeen, baina egungo egunerokotasunean ezin da. Arestian esan bezala, albistegien politikak espezializazioa eragoztekoa bilatzen du, eta kontraesana izango zen hau.

Ezbairik gabe, EITBk iraun behar badu, modernizatu eta garaiei egokitu behar du. Egoerak ez du 1980rekin zerikusi handirik, esparru askotatik begiratuta. Multimediarena egitasmo interesgarria da, baina ezin da modu gordinean ezarri lehentasunen artean baliabideen eta pertsonen murrizketan jarritz.

Telebista eta Internet «bi-mediak» badu zentzua, irudiak Interneten ere egoki kokatzeari eta kontatzeari begira. Internetek beste hizkuntza bat du, albistegian emititutako bideoari ohar txo bat gehitzea edo testu bera erabiltzea ez da kontua. Askoz aukera gehiago ematen ditu Sareak eta horretarako plangintza eta formazioa beharko litzateke.

LABen proposamena: profesionaltasuna, talde-lana eta esku-sartzerik ez

Ez dirudi erraza denik hainbeste urteetan errotutako sistema bat iraultzea, buelta ematea. Alberto Suriok ezin izan zuen okerrago saiatu: pertsonak aldatuz egitura bera mantendu, eta zentsura gordina erabili. Azken finean, siglak aldatuta, alderdikeria bera da hori. LABen proposamena guztiz bestelako bide batetik doa. Akatsak antzeman ditugu dagoeneko, eta, borondaterik baldin badago, oso erraza da kalitateko albistegiak egitea telebistetan, irratietan eta Interneten.

Profesionaltasunaz ari garenean, gu fakultatean urteetan ikasitako kazetaritzaz ari gara, zeinari esperientzia gehituko zaion. Kazetaria, berak sortutako informazioaren jabea bada, erantzule ere izango da.

Albistegien **arlokako talde-lanak sortzea eta sustatzea**: Politika, Ekonomia, Kultura, Nazioartekoa, Gizartea, Kirola. Gezurra badirudi ere, edozein kalitatezko komunikabideren egitura ez da EITBn ematen. Arloetako arduradunak egon, badaude, baina editorearekin biltzen dira soilik.

Taldea bera izan beharko litzateke egunerokotasunari eta epe ertain-luzeari begira egon

behar dena. **Agenda lan taldeak markatu beharko luke.** Talde lanak arloko eta azpi-arloetako **espezializatorako aukerak** asko zabaltzen dizkie kazetariei, **profesionaltasunean sakonduz.** Zirkulua itxiz, kazetariaren espezializazioa agenda propioa sortzeko eta jarraitzeko tresna garrantzitsua da. Ez dago kanpotik inor ekarri beharrik, ez bada langile gehiago behar delako, zeren eta EITBn profesional onak baitaude kalitatezko informazioa ekoizteko.

Zuzendaritza taldeak bere eginkizunak baditu, jakina, baina neurtuagoak eta mugatuagoak izan behar dira. Ardurak postuak esleitzeko garaian gaitasuna eta aukera berdintasuna bermatu behar dira, aldian behin berraztertzeko aukerarekin. Bide honetan ezinbesteko deritzogun **erredakzio kontseiluaren aldez aurreko oniritzia.**

Amaitzeko, hizkuntzen trataerari buruzko proposamena ere badugu. Izan ere ETBn euskarazko eta erdarazko albisteak kazetari berberak egiten dituzte. EITB diglosiko honetan ere euskara ateratzen da kaltetuta. LABen ustez, **euskarazko albistegiek eta erdarazkoek agenda propioak** eta arduradun propioak beharko lituzkete. Aztertzeko modukoa litzateke, ETBk bi zentro edukita, albistegi bakoitza toki fisiko ezberdinean ere egitea.

Hauxe da EITBko LABek euskal gizarteari egiten dion ekarpena. Xumea dirudien arren, luze eta zabal, denboran eta jendearekin, landutako oinarri bat da. Txostena kaleratzeko unea bilatu gabe halaxe tokatu du, eta EAEko hauteskundeetan ostean ateratzen den gobernu berria osatu nahi duten alderdiei luzatzen diegu. Diagnostikoan eta proposamenean sakondu nahi izan ezker, elkarlanerako prest gaude.

EITBko LAB, 2016ko abenduaren 21ean